

2020

# DK memoria

DONOSTIA KULTURA  
BAZKIDEAK





**D**onostia Kulturako bazkideak dira erakunde honen altxor handiena: jarraitzaile leialenak, ikus-entzule, kontsumitzaile, ikastaro-egile, irakurle eta parte-hartzaile dira. Eta harreman hori ez zen zipitzik ere ahuldu 2020. urte zail horretan. Aitzitik, kolektibo horrek eutsi zien Donostia Kulturaren programazioari eta zerbitzuei, maila benetan onean eutsi ere, aktiboki erantzunez kultur eskaintzari kultur etxeak berriro ireki eta gero, eta lehen-lehen unetik fidatuz hartu ziren osasun neurriez. Esker onez jarraitzen dugu lanean, arlo bakoitzean zerbitzu hobea eta abantaila handiagoak eskaintzeko ahaleginean, egunez egun.



### DK TXARTELA, ZENBAKI ESANGURATSUAK

Urte amaieran, **110.066 bazkide zituen Donostia Kulturak** (2019an baino 3.048 gehiago), hots, DK Txartelaren jabe zirenak. Horietatik, %77 donostiarrak dira, ia %60 emakumeak, eta Amara da bazkide gehien dituen auzoa, %19. Ondoren datoz Gros (%13), Antigua-Ibaeta (%11) eta Intxaurren (%11).

Txartel horren bidez, helburu unibertsal bat bete nahi da: herritar guztiei kulturara hurbiltzeko bidea erraztea. Horren adibiderik onena udal liburutegiak dira (oso erabilera handia du txartelak liburu mailegutarako identifikatzean). Horrez gain, publiko jakin batzuk fidelizatu nahi dira arte programari dagokionez. Beste horrenbeste esan daiteke San Telmo Museoaz eta Victoria Eugenia Antzokiaz,

BULETINAK	IZENA emandakoak
Agenda	34.410
Webgunean erregistratuak	27.234
Zinema	13.604
Antzerkia	12.748
Dantza	6.974
Musika	13.796
Artea	7.571
Literatura	7.623
Festak	7.090
Haurrak	3.889

### DK bazkideak 110.066

Antzoki Zaharraz, Imanol Larzabal aretoaz, Intxaurren, Larratxoz eta Gazteszenaz: DK Txartela tresnarik onena da txarteldunei informazio hautatua, deskontuak eta zozketak eskaintzeko.

Abantaila guztiak ikusgai daude bazkideen online atalean, non **27.234 lagun dauden erregistratuta.**



Hala, 2020an emendatu egin genuen abantailen eskaintza, akordioa sinatu baikenuen Basque Culinary

Center-ekin, halako moldez non DK-ko bazkideek %10eko deskontua duten klubaren zaleentzako ikastaroetan eta Tabakalerako LABe jatetxean. Deskontu hori beste erakunde eta kultur programa batzuetan dutenari gehitu behar zaio; esate baterako, Donostiako Nazioarteko Zinemaldian, Musika Hamabostaldian, Chillida Lekun, Jazzaldian, Aquariumean, San Telmo Museoan, Dock of the Bay jaialdian, Uda Ikastaroetan, eta abar.


Horrez gain, San Telmo Museoak ere hobetu egin zituen museoko bazkideen txartelaren abantailak. Gogora dezagun txartel horrek DK bazkidearen abantaila guztiak hartzen dituela: sarrera doan egunero, inaugurazioetarako gonbitak, zozketak eta deskontuak, horra arrazoi batzuk Donostiako museo hori "babesteko", orain inoiz baino gehiago.

The screenshot shows the DK website interface. At the top, there are navigation tabs: EKITALDIAK, JAIALDIAK, GUNEAk, BAZKIDEAK, and BERRIAK. The main banner features the text 'EGIN ZAITEZ BAZKIDE!' and 'Abantaila ugari: Deskontuak, Maileguak, Agenda...'. Below this, there are sections for 'ZOKKETAK' (contests) with a warning about registration, 'DESKONTUAK' (discounts) showing a 10% discount, and 'ABANTAILAK' (benefits) listing Azala, Abantailak eta deskontuak, Zozketak, Wifi doan, and Buletinak. There is also a 'HARREMANETARAKO' (contact) section with a phone number and email, and a 'SAIOA HASI' (start trial) section.




**Hona hemen Donostia Kulturako bazkideen mapa, gaur egun:**

- Bazkideak guztira: **110.066**
- Bazkideak udalerriaren arabera:




- Bazkide donostiarrak auzoka: **GUZTIRA 85.341**






• Bazkideak adin-tarteen arabera:




• Bazkideak sexuaren arabera:





• **Bazkideen garapena 2011-2020:**

Urtero izena emandako bazkide berriak:



Bazkide kopuruaren garapena azken hamar urteotan:

